UBIDESTROI-KO ARAUDIA

DATA ETA TOKIA

- Ubidestroi Trail-eko lasterketa Irailaren 10 izango da, Ubiden (Bizkaia) , irteera goizeko 9:15 izango da herriko plazan, helmuga ere leku berean.

IBILBIDEA:

- 27 km tako distantzia eta 1700 metroko desnivel positiboa izango du.
- -Eguraldi baldintza oso kaxkarrak edo alerta egoera baten aurrean antolakuntzak ibilbidea osoki edo partzialki aldatzeko aukera izango du. Horretarako atolakuntzak salbuespeneko ibilbidea prestatua izango du.

PARTE HARTZAILEAK

- 300 dortsal banatuko dira orotara.
- 18 urteko gorako edozein pertsonak partu hartu ahal izango du.
- -16 urtetik gorakoek ere aukera izango dute betiere gurasoen baimenarekin.

KATEGORIAK

- Kategoria bakarra egongo da. Absolutua. Eta kategoria honetan emakumezkoen eta gizonezkoen sailkapenak izango dira.

IZEN EMATEAK

- Izen emate epea Maiatzaren 20tik Uztailaren 10 bitartekoa izango da. Edo dortsal kopurua agortu artekoa.
- Salbuespen gisa 50 dortsal extra aterako dira Abuztuak 10a baino lehen egiten diren dortsal itzulketak kubritzeko.
- Aipatutako itzulketa horiek ,Abuztuaren 10 baino lehen betiere, salneurriaren %75 berreskuratu ahal izango dute eta itxaron zerrendako eskariez ordezkatuko dira izen emate orden zehatza errespetatuz.
- Izen emate orduan emango den kamiseta opariaren neurria aukeratu ahalko du partehartzaile bakoitzak. Itxaron zerrendako izen emateetan, antolakuntzak ezin izango du eskatzen den kamiseta neurri egokia ziurtatu berau bermatzeko ahalegin guztiak egingo diren arren.

- Dortsalak pertsonalak eta transferi ezinak izango dira eta antolakuntzak NAN edo pareko dokumenturen bat eskatu ahal izango du egiaztatzeko. Nortasun ordezkapenak dortsal galerarekin zigortuko dira.
- Dortsal bakoitzak, opariaz gain ekintza aseguru pertsonalizatu bat izango du.
- Izen ematea Kronoak plataforma bidez egin beharko da derrigorrez.
- Dortsala jasotzeko orduan, korrikalariaren asegurua baliagarria izan dadin, korrikalariak bere nortasun agiria edo ordezko baliagarriren bat erakutsi beharko du. Holakorik ezean antolakuntzak dortsalik ez emateko ahalmena izango du.

DERRIGORREZKO MATERIALA:

- Antolakuntzak derrigorrezko material bat eskatu ahalko du. Marterial hau ibilbidearen osotasunean gainean eraman beharko du korrikalari bakoitzak.

    - **Txanodun zira** eraman derrigorrezkoa izango da. (Berau txano gabekoa den kasuetarako korrrikalariak burua babesteko buruko bat eraman beharko du ziraz gain)
    - **Manta termika.**
    - Eguraldia bereziki kaxkarra izatekotan antolakuntzak **mugikorra** eramateko derrrigortasuna ezarri ahalko du. Lasterketa osoan piztuta eta batería nahikoarekin)

DORSAL BANAKETA

- Ostiralean irailak 9 ubideko frontoian 18:00-20.00 arte.
- Zapatuan iraila 10 ubideko frontoian 7:30-8.45arte

MATERIAL KONTROLA

- Goizeko 8:30etatik 9:10 lasterkeariek herriko plazara hurbildu beharko dute eta antolakuntzak korrikalari bakoitzari derrigorrezko materiala eskatu eta txekeatuko dio. Derrigorrezko materialik ezean, edo erakutsi nahi ez izatekotan, antolakuntzak dortsal hori ezgaitzeko aukera izango du.
- Dortsala gorputzaren aurrekaldean eta ikusgarri den tokian eraman beharko da momento oro.

DENBORA MUGAK

- Lasterketa burutzeko gehienezko denbora 6 ordukoa da.
- Gorbeiako gurutzetik(13km) pasatzeko gehienezko denbora 3ordu terdikoa da.

ANOA GUNEAK

- ***Muruako kanterak***: solido likido, gurutze gorria eta kontrola(8 km.)
- ***Gorbeia***: Likido eta kontrola (13 km.)
- ***Saldropo:*** likido,solido gurutze gorria eta kontrola (19km)
- **Eugenion mendie:** likido eta solido,
- **Ubide:** Helmuga. Solido +likido eta gurutze gorria

SARI BANAKETA

- 14:30 emango zaio hasiera sari banaketari ,Ubideko herriko plazan jarriko den eszenatokian.

1 go Emakumezkoa Txapela, Garaikurra eta 300€

2. Emakumezkoa 200€

3. Emakumezkoa 100€

1go Gizonezkoa Txapela,Garaikurra eta 300€

2.Gizonezkoa 200€

3.Gizonezkoa 100€

ANTOLAKUNTZAK EDOZEIN ARAZO TEKNIKO ZEIN DESADOSTASUNAREN AURREAN EHF-KO MENDI LASTERKETEN ARAUDIA IZANGO DU EBAZTEKO OINARRI.

UBIDESTROI TRAIL